



Nekazaritza ekologikoaren berezitasunak



www.eneek.org

SARRERA

Gida honetan elikagai ekologikoen ekoizpenak dituen berezitasunak zehazten dira. Lehendabizi pertsona eta enpresek izan behar duten konpromiso maila azaltzen da eta ostean nekazaritzak, abeltzaintzak eta elikagaien eraldaketa jarduerak dituzten ezaugarriak zehazten dira.

Berezitasun guzti hauek 4 irizpidetan oinarritzen dira: OSASUNA, EKOLOGIA, ZUZENTASUNA eta ARDURA.

DEFINIZIOA

“Nekazaritza ekologiko, biologiko edo organikoa, luraren emankortasuna eta, ekosistemen eta gizakien osasuna mantendu eta indartzen duen elikagaiak ekoizteko eredua da. Prozesu ekologikoetan, biodibertsitatean eta lekuan lekuko zikloetan oinarritzen da, kutsadura eragingo luketen kanpo baliabideak baztertuz. Horregatik, nekazaritza ekologikoaren teknikak muzin egiten die ongarri kimiko, pestizida, genetikoki eraldaturiko organismo eta orokorrean, naturalak ez diren bestelako gai sintetikoak”.



ENEK

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura
Ekologikoaren Kontseilua
Consejo de Agricultura y Alimentación
Ecológica de Euskadi

www.eneek.org

Nekazaritza ekologikoan
ari diren pertsona eta
enpresek KONPROMISO
MAILA handia dute.

Honek bermatzen du
sektorearen gardentasuna
eta kontsumitzailearen
konfiantza.




ERREGISTROA



Ekoizpena ekologiko, biologiko edo organiko izendapenarekin merkaturatzeko Nekazaritza Ekologikoaren Kontseiluan, ENEEK, inskribatzen dira lursailak eta azpiegiturak.

GARDENTASUNA



Azpiegiturak eta beharrezko informazio guztia, aztertzeko erraztasunak ematen dira. Era horretan, baieztatu dezakete lana eredu ekologikoaren arabera egiten dela.




Kontseiluak uneoro daki zein plangintza duen baserri-tarrak laboreei dagokionez edota ganaduaren hazkuntza-programari dagokionez.



Eraldatzaile ekologikoek aldeaz aurretik komunikatzen dizkiote kontseiluari eraldaketa-lanak egingo diren datak. Era horretan, ikuskatzaileek aukera dute prozesua bertatik bertara ikusteko.

INFORMAZIOA



Egindako lanen gorabeherak idatziz jaso eta harremana izan dezaketen dokumentuak gordetzen dira. Informazio guzti hau Kontseiluaren esku jartzen da, honek baieztatu dezan Nekazaritza Ekologikoaren araudia bete dela.



Eraldatutako elikagaiak ekoiztean, prozedura-fitxetan batzen dira erabilitako lehengaiak, kopuruak eta prozesuaren gorabeherak.

ETENGABEKO HOBEKUNTZA



Kontseiluko ikuskatzaileek detektaturiko arazoak konpontzen dira, hauek berriz ez gertatzeko neurriak ezarri.

ATENTZIOA




Kontsumitzaile edota bezeroek egindako erreklama-
zioak gordetzen dira, eta idatziz erantzun. Kontseilua
informatzen da tankera honetako gertakariez.

EBALUAKETA



Kontseiluko langile adituek ustiategiak bisitatzen dituzte, landaketak eta azpiegiturak ikuskatuz, eta beharrezkoa bada, analisiak egiteko laginak jasotzen dituzte.



Sartutako lehengaien eta ateratako produktu ekologikoen kopuruak bat datozela egiaztatzeko balantzeak egiten dituzte.

KUTSADURA EKIDITEKO NEURRIAK

Nekazaritza ekologikoarekin bateragarriak ez diren produktu edo substantzien kutsadura ekiditeko neurriak hartzen dira, prozedura zorrotzak ezarriz.



Ekoizpen ekologikoa egiten den eremuan ez dira onartzen nekazaritza ekologikoan erabili ezin daitezkeen substantziak edo materialak.




Produktu ekologikoen eraldaketa etenik gabeko sortetan egiten da, fisikoki edota denboran zehar banatuta.

KUTSADURA EKIDITEKO NEURRIAK



Garbiketa egokiak egiten dira, osasun baldintzak bermatuz.

BATERAGARRITASUNA



Lursailen bat eredu ekologikotik kanpo landatzen bada, bereizteko moduko landare barietateak izaten dira. Era berean, eredutik kanpo hazitako animaliak espezie desberdina izan behar dira.

TRAZABILITATEA

Bermatu egiten da ekologikoak ez diren produktua ez direla merkaturatzen eredu ekologikoari erreferentzia eginez.



Produktu-sortaren zenbakiak erabilitako lehengaien jatorria jakiteko modua ematen du.



Produktu ekologikoak etiketa batekin garraiatzen dira eta bertan produktuaren jabea edo egilea eta ekoizpenaren kontrola egin duen erakundea, ENEEK, aipatzen dira. Informazio berbera faktura eta emate-agirietan agertzen da.

IMPORTAZIOAK



*Europar Batasune-
ra inportatzen diren
produktu ekologikoe-
tan ere jatorri ekolo-
gikoa bermatzen da.*

IDENTIFIKAZIOA

*Soilik nekazaritza eredu ekologikotik lortutako elika-
gaiak merkaturatu daitezke Ekologiko, Eko, Biologiko,
Bio eta Organiko aipamenekin.*

*Nekazaritza Ekologikoaren ezaugarriak Europa guzti-
rako indarrean den 834/2007 (EB) Araudian finkatu-
ta daude, bai ekoizpenari zein etiketatuari dagokio-
nez. Produktu ekologikoek araudi hori betetzen dutela
bermatzen duen kontrol agintea Euskadin ENEEK da,
Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren
kontseilua.*

*Elikagai hauen etiketan, Europar Batasuneko ekologi-
ko logoa - "eurohostoa" - agertu behar da eta hone-
kin batera produktuaren benetakotasuna ziurtatu duen
entitatearen izena eta kodea. Euskadin ziurtatutako
elikagaiak ENEEK erakundearen kodea daramate, ES-
ECO-026-VAS. Logoaren presentziak produktu ontzi-
ratuetan, zein ekoizlearen inskripzioak eragile eko-
logikoen erregistroan, bermatzen dute produktua era
ekologikoa landu (landaketak) edo hazi (animaliak)
edota eraldatu (transformatuak) dela.*




ES-ECO-026-VAS
EB Nekazaritza

LANDARE
EKOIZPENAREN
ezagarrak
Nekazaritza
Ekologikoan



EREDU EKOLOGIKORA EGOKITZAPENA

Ekoizpen ekologikoari ekiten dion lursail berri bakoitzak egokitzapen-epe bat pasa behar du. Lursail hauen lortutako ekoizpenak ezin dira ekologiko moduan merkaturatu, egokitzapen-epea pasa arte.



LURRAREN, URAREN, AIREAREN, LANDAREEN ETA ABEREEN OSASUN EGOERAREN HOBETZEA



Baliabide naturalen erabilera arduratsua egiten da, naturaren sistemak eta zikloak errespetatuz. Lurraren, landareen, airearen eta abereen osasuna zainduz, eta guztien arteko oreka bilatuz. Norberaren baliabideei etekina ataratzea hobesten da, kanpoko baliabideen erabilera ahalik eta gehien gutxituz.

LURRAREN, URAREN, AIREAREN, LANDAREEN ETA ABEREEN OSASUN EGOERAREN HOBETZEA



Ureztapena: ez dira sistema hidroponikoak erabiltzen, ez eta ureztapenean sintetiko ongarri nitrogenatuak gehitzen dituzten sistemak ere.




Erabiltzen diren materialei ahalik eta probetxu gehien ateratzeko saio, hauen berrerabilpena eta birziklapen ego-kia eginez.



Energiaren erabilera arduratsua egiten da. Ez dira berokuntza-sistemak edo argiztapen-sistemak erabiltzen, laboreen berezkoa den sasoitasuna bizkortu edo luzatzeko.

HAZI ETA LANDEREEN AUKERAKETA

Nekazaritza bioaniztasuna sustatzen da. Baserritarrek espezie ezberdin asko landatzen dituzte, ahalik eta produktu-aniztasun handiena izateko, eta laboreen txandaketa era egokian egin ahal izateko..




Salmenta eremu hurbilean egiteak ahalbidetzen du tokian-tokiko barietateekin lan egitea..




Haziak, landareak eta, oro har, erreprodukzioarako erabiltzen diren materialak ekoizpen ekologikotik lortuak dira. Beraien sorreran ez dute tratamendurik jazo pestizidekin, eta haziak ez dira ez kimikoki ez injenieritza genetikoaren bidez tratatuak izan.

LURRAREN EMANKORTASUNA INDARTU ETA SUSTATU




Nekazaritza ekologikoan erabiltzen diren teknikak lurreko materia organikoa mantendu edo areagotzen dute. Honek lurraren egonkortasuna eta bioaniztasuna indartzen du, lurraren beraren trinkotzea eta higadura borrokatuz.




Lursail batean landatzen diren laboreak txandakatzeko dira, lekariak, ongarri berdeak eta bestelako espezieak tartekatuz.

LURRAREN EMANKORTASUNA INDARTU ETA SUSTATU




Abereetatik edo bejetaetatik eratorritako azpiproduktuak birziklatu egiten dira, ekoizpen bejetalean edota abeltzaintzan erabiliak izateko, ahal dela konpostaturik. Abeltzaintza intentsiboan (loditegiak, kaiolak) sortutako simaurrak ez dira erabiltzen.



Mantenugaien aldetik gabezia konkretuak izanez gero, edo luraren estruktura hobetzeko, jatorri mineraleko ongarri edo egokitzaileak erabili daitezke, beti ere disolbagarritasun txikia dutenak. Jatorri sintetikoa edo industrialak duten ongarri edo egokitzaileak ez dira onartzen.

LURRAREN EMANKORTASUNA INDARTU ETA SUSTATU



Ongarriketan lurriari gehitzen zaion nitrogenu kopurua mugatua dago, ingurumenaren kutsadura ekiditeko.

NEKAZARITZA




Ohikoa da landareekin edota mikoorganismoekin egin-dako prestaketak erabiltzea, lurra zein lurrean bizi diren mikoorganismoak indartzeko.

IZURRIEK, GAIXOTASUNEK ETA BELARREK ERAGINDAKO KALTEEN PREBENTZIOA

Lurraren emankortasuna eta aktibitate biologikoa indartzen dira, laboreen txandakatzea doitu, tokian-tokiko klimaren ezaugarrietara hobekien moldatzen diren espezie eta barietateak aukeratu, eta labore bakoitza bere sasoiari landatu.



Izurri izan daitezkeen intsektu eta abereen etsai naturalen presentzia bilatzen da, batzuen eta besteen arteko oreka bilatu. Adibidez: landu gabeko lursailak uzten dira, fauna lagungarriaren gordelekuak sortu.



Belarren kontrolerako, ez da sekula baliabide kimikorik (herbizidak, esaterako) erabiltzen. Aldiz, laboreen txandakatzea doitzen da belar jakin batzuk kontrolatzeko; ereintza faltsuak egiten dira; teknika mekanikoak edo termikoak erabiltzen dira; akoltxatuak erabiltzen dira...


IZURRIEK, GAIXOTASUNEK ETA BELARREK ERAGINDAKO KALTEEN PREBENTZIOA

Lurraren emankortasuna eta aktibitate biologikoa in-dartzen dira, laboreen txandakatzea doitu, to-kian-tokiko klimaren ezaugarrietara hobekien moldatzen diren espezie eta barietateak aukeratu, eta labore bakoitza bere sasoian landatu.




NEKAZARITZA

Izurri edo gaixotasun baten aurrean hartutako pre-bentzio neurriak nahiko ez direnean, substantzia fito-sanitarioak erabiltzen dira. Substantzia hauek aberee-tatik, landareetatik, mikrobioetatik edota mineraletatik eratorriak izan daitezke. Naturarentzat arrotzak diren sustantziekin egindako prestaketak ez dira onartzen.




Kobrearen erabilera mugatua dago: gehienez, 6 kg kobre erabili daitezke urtean, hektareako.

*ABELZAINTZAREN
ezaugarriak
ekoizpen ekologikoan*



EREDU EKOLOGIKORA EGOKITZAPENA

Ekoizpen ekologikoari ekiten dion azienda bakoitzak egokitzapen epe bat pasa behar du. Bertan lortutako ekoizpenak ez dira ekologiko bezala merkaturatzen egokitzapen epe hori pasa arte.



Epe hau belardiei zein abereei ezartzen zaie. Luza-pena abere-espeziearen arabera da.



Egokitzapen aldian zehar, abereen ardura duen pertsonak frogatu behar du abereen ongizateari buruzko oinarriko jakintzak badituela.


LURRARI LOTUTAKO EKOIZPENA



Ez dago baimendua lurrik gabe ekoiztea (abeltzainak bere lurrak kudeatu behar ditu, edota beste baserritar baten lurrak erabili ahal izateko akordio izenpetuak behar ditu):

- Ganaduaren janaririk zati handi bat aziendan bertan ekoiztua izan behar du, edo hurbileko baserritar ekologikoek ekoiztua.
- Soberan dagoen simaurra aziendako lursailetan edo hurbileko baserritar ekologikoen lurretan banatzen da.


BELARDIEN MANEIUA




Ekoizpen begetalarentzat ezarrita dauden irizpideekin bat dator. Gehiegizko artzaintza gerta ez dadin, ganadu-zama (abere kopurua) mugatua da. Izan ere, horrek belardien kaltetzea ekar dezake, higaduraren eta gehiegizko simaur kopuru batek sor dezakeen kutsadura dela eta.

ABEREEN JATORRIA

Ekoizpen ekologikora bideratutako abereak eredu ekologikora atxikitzen diren aziendetan jaio eta hazi behar dira.





Abereen arraza aukeratzerakoan, arrazak tokian-tokiko baldintzetara moldatzeko duen gaitasunari garrantzia ematen zaio (gaixotasunei aurre egiteko duen gaitasuna, indarra...), ahal den neurrian bertako arrazei lehentasuna emanez.




Hasikuntzari dagokionez, badago aukera jatorri ekologikoa ez duten abereekin lan egiteko, baina mugak daude ganaduaren adinari, pisuari eta berriztaturiko abere kopuruari dagokionez.

HAZKUNTZA AIRE LIBREAN




Baldintza atmosferikoek eta lurraren egoerak posible egiten badute, abereak aire librea daude (larreak hobesten dira).




Hasikuntza ekologikoko abereak beste ganadu mota batzuekin batera egon daitezke lur komunaletan, lur hauetan egiten den maneja abeltzaintza ekologikoarekin bateragarria bada. Aldi berean, abeltzaintza ez ekologikotik datozen abereak lursail ekologikoetan ibili daitezke urteko sasoi jakin batzuetan.

ABELAZKUNTZA JARDUERAK ETA ESTABULAZIOA

Ukuiluak abereen beharretara moldatu behar dira, bai fisiologiari dagokionez eta baita abereen izaerari dagokionez ere.



Baldintza klimatologikoei abereak aire librean bizitzea ahalbidetzen duten lekuetan, ez da beharrezkoa abereek ukuilua izatea.




Abereak ez dira lotzen, edota indibidualki isolatzen, kasu puntualetan baizik (epe mugatu batez; segurtasun-arrazoiak direla medio; osasun-arrazoiak direla medio...).

Behin txahalek astebeteko adina dutenetik aurrera, ez dira "box"-ak edo banakako kutxak erabiltzen.

ABELAZKUNTZA JARDUERAK ETA ESTABULAZIOA




Etxaldeko baldintza ambientalak egokiak izatea bilatzen da: aire-zirkulazio ona, hauts gutxi, hezetasun egokia, tenperatura eta argiztapen naturala.




Ukultuan dagoen abere kopurua mugatzen da, erabilgarri dagoen azaleraren arabera, espeziearen arabera eta abereen taimanaren arabera.

ABELAZKUNTZA JARDUERAK ETA ESTABULAZIOA




Ukuiuko zorruak irmoak dira. Simaurra jasotzeko sareak badaude, hauek ukuiuko azalera osoaren erdia baino gutxiago estaltzen dute. Atsedenguneetan, azpiak leku nahikoa hartzen du, eta lehorra da, material naturalez egindakoa.



Abereen sufrimendua minimora murrizten da, baita hiketaren garaia heltzen denean ere. Mozketak ez dira onartzen. Kasu bakoitzean egindako azterketaren arabera, adarren mozketa edo ardien buztanen mozketa baimendu daiteke, segurtasun arrazoiak, osasun arrazoiak edo ongizatea direla medio. Ekoizpen-mota tradizional batzuetan soilik, zikiratze fisikoa baimendua dago.



ELIKADURA

Elikadura ekoizpen ekologikotik edo egokitzapenean dauden ekoizpenetatik dator.



Pentsuak lehengai ekologikoez eta nekazal jatorria ez duten beste substantzia naturalez osatuak daude. Ez da onartzen pestizidek, kontserbagarriek edo transgenikoek eragindako kutsadurarik.

+60%



Belarjaleen kasuan, bazkak eguneroko anoaren %60 da (gai lehorrean neurtua). Txerri eta hegaztien eguneroko anoaren zati bat ere bazkak osatu behar du.

ELIKADURA

Elikadura ekoizpen ekologikotik edo egokitzapenean dauden ekoizpenetatik dator.



Abereen elikadura, hein batean, etxaldean bertan edo inguruko beste etxalde ekologiko batzuetan ekoizten da (anoaren %60 belarjaleentzat eta %20 txerri eta hegaztientzat).



Pentsuen ekoizpenean, gehigarrien erabilera mugatua dago. Horrez gain, lehengaiak ezin dira kontserbagarriekin trataturik egon, eta lehengaiak lortzeko ezin daitezke disolbagarri kimikoak erabili.

GAIXOTASUNEN PREBENTZIOA ETA TRATAMENDUA


Abereen osasun-egoera egokia izateko, hauen berezko defentsa immunologikoak indartzen dira.

Gaixotasunen prebentziorako hartzen diren neurriak dira: arraza egokien hautaketa, kalitatezko elikadura, eguneroko ariketa fisikoa, larreetan aske ibiltzeko aukera, abere kopuru egokia eta ukuilu garbia (baldintza higieniko onean dagoena) izatea.



Prebentziorako tratamenduak egiten direnean, ez dira baliatzen ez sintesi kimikotik lortutako botika alopatikoak, ezta antibiotikoak ere.

Haazkuntza edo ekoizpena bizkortzeko sustantzien erabilera ez dago onartua. Ugalketaren kontrolerako, ezin daitezke hormonak erabili.



Abereen sufrimendua gutxitzeko, gaixotasunak tratatu behar dira. Horretarako, lehenengo aukera tratamendu fitoterapeutikoak eta homeopatikoak dira. Arazoa larria bada, eta sintesi kimikotik lortutako botikak edo antibiotikoak erabili behar izan ezkerro, al baitari baten ikuskapenarekin egingo da. Kasu hauetan, erabilitako botikentzat ezarrita dagoen segurtasun epea bikoiztu egiten da, tratamendua jazo duten abereen produktua merkaturatu ahal izateko.

ERALDATUTAKO
PRODUKTU
EKOLOGIKOEN
ezargarriak




OSAGAI EKOLOGIKOAK

Eraldatutako produktuen osaketan, nekazal jatorriko lehengaiak dira nagusi.



Produktu ekologikoen eraldaketarako erabili diren lehengaiak ziurtapen ekologikoa duten baserritarrek ekoiztu dituztela baieztatzen da.



Ziurtapena duten elikagai ekologiko eraldatuen osaketan, lehengaien %95 baino gehiago ekologikoak dira.

Produktu eraldatu batean ezin daiteke nahastuta egon jatorri ekologikoa eta ez ekologikoa duen osagai bat (berdin, egokitzapen prozesuan dauden etxaldeetan ekoiztutako osagaien zatia).



Eraldaketa erabilitako osagaiak ezin dira Genetikoki Eraldaturiko Organismoetatik eratorriak izan.


GEHIGARRIEN ERABILERA MUGATUA



Produktu ekologikoen eraldaketan, gehigarrien erabilera ahalik eta gehien murrizten da. Sustantzia jakin batzuen erabilera baimentzen da. Horretarako, zenbait baldintza bete behar dira: beste aukerarik ez dagoela ziurtatzen bada; produktuaren eraldaketarako edo kontserbaziorako ezinbestekoa bada; edo legediak gehigarri horren erabilera behartzen badu.

Fruta, barazki eta beste elikagai batzuen kontserbaziorako erabili daitezkeen gehigarrien zerrenda, eta hauek erabili ahal izateko bete beharreko baldintzak, araudi ekologikoan batuta daude.

DEBEKATURIKO SUSTANTZIA ETA TEKNIKAK



Eraldaketa- edo biltegi-irratzearen ondorioz galdutako ezaugarriak berreskuratzeko teknika edo sustantziak ezin daitezke erabili. Era berean, eraldaketa eskas baten emaitzak estaltzeko, edota produktuaren benetako izaera aldatzeko teknika edo sustantzia ez daude onartuta. Elikagaiak tratatzeko erradiazio ionizatzaileak erabiltzea debekatuta dago.



ENEK

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura
Ekologikoaren Kontseilua
Consejo de Agricultura y Alimentación
Ecológica de Euskadi

www.eneek.org

*ENEKEN parte garen pertsona,
enpresa eta entitate guztien helburu
nagusia nekazaritza eta elikadura
eredu ekologikoaren normalizazio eta
sustapena dira. Kontsumo eredu eko-
logiko baten alde lan egiten dugu.
Horretarako Euskadiko nekazari eta
abeltzainen artean ekoizpen ekologikoa
bultzatzen saiatzen gara eta ahalegin
berezi hori kontsumitzaile pertsonen
belarri, begi eta ahora eramaten. Ho-
nela, gure eguneroko erosketen ot-
zaran nekez faltako dira naturarekin
bat eginez lortutako konfiantza osoko
elikagai osasuntsuak.*



ES-ECO-026-VAS